

MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

UME ALAIA

Gari beti dabil bakarrik eta isilik.
Ane Piratak zer pasatzen zaion
galdetu nahi dio aspalditik. Gaur,
jolasgaraian, gerturatzeko
aukera ikusi du.



elkarlanean



TIRA, DENOK SENTITZEN
GARA NOIZBAIT TOKIZ KANPO.
EZ ZAITEZ TRISTETU.

ESKERTZEN DIZUT ANE,
BAINA NIK EZ DUT INOIZ
NIRE TOKIA TOPATU.

HIRU URTE NITUELA ADOPTATU NINDUTEN
ETA IKASTOLAN HASI NINTZEN. EZ NUEN SEKULA EUSKARAZ
HITZ BAT ENTZUN ETA KOSTATU EGIN ZITZAIKAN.
BAT-BATEAN, ALDAKETA ASKO IZAN ZIREN NIRE BIZITZAN.



URTE BATZUK GEROAGO,
ALDIRO FAMILIAREN MARRAZKIAK EGITEKO ESKATZEN
ZIGUN IRAKASLEAK EDOTA JAIO GINENEO ARGAZKIAK EKARTZEKO.
ETA KEZKATU EGITEN NINTZEN. ORAIN NIRE FAMILIA DENA
EZ ZEGOEN NIRE ONDOAN NI JAIO NINTZENEAN.



ETA ORAIN NIRE GORPUTZA
ALDATZEN HASI DA,
NIRE AHOTSA ALDATZEN HASI DA,
ETA EZ DAKIT OSO SEGURU
NOR NAIZEN ERE.



TIRA GARI.
GOAZEN JOLASTERA. GUTXIAGO
KEZKATU ETA GEHIAGO GOZATU.



ANE, BAINA NI TIPO TRISTEA
NAIZ, INORK EZ DU NIREKIN
JOLASTU NAHI.



BIZIPOZAKo elkarteak

- ADEMI:** Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitza Elkarteak.
- AFESTTA:** Euskadiko Tourette Sindromearen eta bestelako osasun-arazozen familien Elkarteak.
- AGIPASE:** Gipuzkoako guraso bananduen elkarteak.
- AMPGYL:** Gay, Lesbiana, Bixesual eta Transexualen Gurasoen Elkarteak.
- ARNASA:** Gipuzkoako Fibrosi Kistikoaren Elkarteak.
- ASPANIF:** Guraso elkarteak, euren umeak erbi ezpaindun edo ahasabai hautsiekien jaiok izaki eta, batipat, Euskal Herrian jarduten duena.
- ASPANOGL:** Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarteak.
- AURRERA ATERA:** Animalien laguntzako terapiaren bidez bazterturiko kolektiboen aurrean laguntza fisiko eta emozionalak lantzen ditu.
- BANAIZ BAGARA:** Euskal Herrian bizi diren etorkinekin euskara ikasteko moduak eskaintzen ditu.
- BEROA:** Gipuzkoako harrera familien elkarteak.
- BIHOTZEEZ:** Kardiopatiadun haurren familien Elkarteak.
- BOCALAN BIAK BAT:** Elbarritasun bat duten lagunei eta gizarteaz bazterturik geratzeko arriskua dutenei laguntzeko txakurrak hezten ditu.
- CHERNOBILEN LAGUNAK:** Ukrainiako Doviřia gizarte etxarekin lan egiten du Gipuzkoako elkarteak.
- CHRYSALLIS EUSKAL HERRIA:** Adingabe Transexualen Familien Elkarteak.
- DRAVET:** Dravet Sindromea dutenen Fundazioa.
- ETIOPIA UTOPIA:** Wukron eta hedaduraz, Tigray eskualdean, garapenerako lankidetzan lagundu eta laguntza humanitarioa ematea duena.
- FSDPV:** Euskadin down sindromea duten familien elkarteak.
- GEHITU:** Berdintasun Sozialaren defentsan lan egiten dute.
- GIZAKIEN LURRA:** Laguntza zuzena babesik gabeko haurrei. Politika, arraza eta konfesionaltasuna kontuta hartu gabe.
- GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUEN FEDERAZIOA:** Kirol egokituaren sustapena eta antolaketa Gipuzko.
- GOIERRIKO SAHARAREN ALDEKO LAGUNAK:** Sahara herriaren alde lan egiten duen elkarteak.
- GURE NAHIA:** Gipuzkoako Gaixotasun arraroak dituzten haurren aldeko Elkarteak.
- GURE SEÑEAK:** Bizkaiko Txorierri gaixotasun arraroak dituzten haurren familien Elkarteak.
- HIRU HAMABI:** Garuneko kaltea jasan duten adin txikikoen familien elkarteak.
- JUNEREN HEGOAK:** Beharra duten beste haurrei laguntzeko sortutako elkarteak.
- KALE DOR KAYIKO:** Ijito Kultur Elkarteak.
- PAUSOKA ELKARTEA:** Beharizan bereziak dituzten haurren gurasoak.
- SEASKAKO INTEGRAZIO BATZORDEA:** Ahalmen urriko haurren eskolatzea sustatzen du ikastoletan.
- UME ALAIA:** Adopzio Familien Elkarteak.
- ULERTUZ:** Bizkaiko Lurraldean entzumen urritasuna duten neska-mutilei eta gazteei eta horien familiei laguntza zuzena sustatzen eta eskaintzen duen elkarteak.

Harremanetarako 647355352 / leire@bizipoza.org

www.bizipoza.org